



NEGOZIO MITIKOAK

Ibilbide eta historia luzea izan eta ospe handia lortu duten herriko hainbat saltoki gogora ekarriz 20

KALITATEAK MIELE AUKERATZEN DU:

Miele



Miele-ren G 5000 ontzi garbigailu berria

- Kalitate test zorrotzenek ziurtatutako 20 urteko iraupenagatik.
- Malgutasun handiena mahai-tresnak gordetzeko 3D bandeja eksklusiboagatik.
- Erraz ireki eta ixteko ComfortClose sistemagatik.
- Erosotasun handiena otarren kokaleku berriagatik.
- Merkatuko ur eta energia kontsumo baxuenagatik.

AUKERATU MIELE. AUKERATU KALIA TEA.

5 urteko bermea

2010.09.15etik 2010.11.30era arte erositako G 5000 serieko ontzi garbigailuentzako promozioa.*



IKUS ITZAZU GURE ERAKUSKETAN. LIBURUTEGI ONDOAN

Milar Larramendi · Xabier Munibe, 11 · Julio Urkijo, 16 · Azkoitia · Tel. 943 85 18 97

uztarria

Argitaratzailea. Uztarria
Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
(Azpeitia, 20730)
Telefona eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
uztarria@topagunea.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 121.a (2010eko urria)
Urtea. XII.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685 730 792 /
oalegria@uztarria.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilero
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. A. Agirrezabala
Web orrialdea.
www.uztarria.com

**Uztarria herri aldizkariaren
laguntzaileak** (erakunde
publikoak)



Gipuzkoako
Foru Aldundia



**Uztarriak
Bai Euskarari**

Oharra. Uztarria
Komunikazio
Taldea ez du
bere gain hartzen
herri aldizkariaren
adierazitako
esanen eta
iritzien
erantzukizunik



2010EKO URRIKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



16



04



34

iritzia

Inkesta. Zer moduz
hasi duzue ikasturte
berria? **13**

mamia

Klik! Udaletzeko
brigadan herritarrak
lanean **16**

Onintza Seguroa.

Euskadi Irratiako
kazetarekin
solasean **04**
**Alternatibaren
eskaera.** Erlijio
ekitaldien tradizioaz
zer iritzi dute Udaleko
ordezkari politikoek? **24**

jakiteko

Albina Arregi. Ehun
urte bete eta bizitakoaz
eta bizi duenaz
kontu-kontari **34**


**Ba aL dakizu azpeitiko Lau emakumetatik
hiru, herria utzita, kanpora joaten
direla bizitzera?** **Uztarria**

egin zaitez bazkide Uztarrian



943 15 03 58

**Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere
eskuratuko dituzu.** Uztarria Komunikazio Taldea orain arte
12 liburu (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak
atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.157 bazkide
gara dagoeneko Uztarrian;
eskerrik asko denei.

30 euro dira urtean.
106.400 euroko aurrekontua
du Uztarriak 2009. urterako.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre (Uztarriak hurrengo hilabeteetan liburuxka gehiago aterako ditu)

ONINTZA SEGUROLA

irratiesataria

“Momentu honetan oso gustura nago”

Irratian lan mordoa probatu ondoren, egun bi saiotan egiten du lana. Gustura dago momentuko egoerarekin, eta ez dauka aldatzeko asmorik. 📝👁️ Xabier Otamendi

Kazetaritza ikaslea zela, 22 urterekin, ordezkapenak egiten hasi, eta halako lan mordoa egin ostean, egunero entzun dezakegu Onintza Segurrolaren ahotza Euskadi Irratian. Oraindik ere kontratu “fijoa” ez izan arren, *Gertukoak* eta *Landa-berri* saioetan entzun dezakegu.

Irratian egiten duzu lan, zein programetan?

Astelehenetik ostiralera, *Gertukoak* saioan egiten dut lana, eta larunbat eta igandeetan, berriz, *Landaberri*-n. Duela pare bat urte hasi nintzen *Gertukoak* saioarekin. Albistegi orokorraren ondoren eskaintzen den hogeiei minutuko tarte da. Herri mailan garrantzitsuak diren albisteak ematen ditugu. 20 minutu izaten ditugu, Gi-

puzkoako, Bizkaiko, Arabako eta Nafarroako informazioa eskaintzeko. Ni Gipuzkoako informazioaz arduratzen naiz. Lehen, herrialde bakoitzerako bi langile geunden, baina gaur egun Bizkaiko informazioa eskaintzeko baino ez daude bi kide, gainontzeko probintzi bakoitzerako langile bakarra gaude. Bakoitzak bere lurraldetik ematen du informazioa. Aurkezlea, berriz (Beatriz Zabaleta), Donostian izaten da, beraz, ni berearekin egoten naiz estudioan.

Non bilatzen duzue informazioa?

Urte hasieran, herri bakoitzeko udaletxei eta beste talde batzuei e-posta bana bidaltzen diegu, nor garen jakinaraziz, eta albisterik badute lasai bidaltzeko gurer

|||**DATUAK**|||||||

|||**Jaio.** 1971ko uztailaren 9an.

|||**Herria.** Matxinbenta. |||**Bizitokia.** Azpeitia. |||**Lanbidea.** Euskadi Irratiko kazetaria eta esataria.



esanaz. Bestalde, egunkari eta aldizkariak ere erabiltzen ditugu, besteak beste, *Hitza* eta *Uztarrria*. Beti arretaz ibili beharra dago, zerbait interesgarria eta bitxia aurkitu nahi baduzu, behintzat. Behin aurkitutakoan, zeuk ikusten duzu erreportajea, elkarrizketa edo zer egin. Albisteak motxa izan behar du, lau lurraldeentzat hogeiei minutu baino ez baitaude.

Beraz, bakoitzak bost bat minutu dituzue, ezta?

Beno, ez da hain zorrotza izaten. Nik gaur hiru albiste egin ditzaket eta bihar bakarra. Dauden gaien arabera, eta editoreak aukeratzen duenaren arabera izaten da hori normalean. Editoreak eguneko aurreikuspenen zerrenda hartzen du, eta bakoitzak zer albiste landu



behar dituen erabakitzen du. Normalean gai oso ezberdinak lantzen ditugu. Gaur, adibidez, Donostiko kulturaren prentsaurreko batera joan naiz, Karitasek programa berria aurkeztu duela azaldu dut eta Hernaniko Zikuñaga amabirjinaren inguruko informazioa eskaini dut.

Landaberri programa ere aipatu duzu...

Urte batzuk baditu, zortzi, hain zuzen. Ingurumena eta lehen sektorearen baitako saioa da. Baserri inguruko informazioa eskaintzen dugu gehienbat.

Arrantza kontuak ez ditugu lantzen. Ordu erdiko programa da, eta ordu erdiak, ematen duena ematen du. Igandeko atala berria da. Lehenengo sei urtetan larunbateko programan ibili nintzen. Zuzendaritzak audientzia dezentea zeukala ikusi zuen, eta igandean ere programa jartzea erabaki zuten. Larunbatetan ez da tarte askorik izaten, lehen ordu laurdena albisteentzako izaten da.

Kasu honetan ere, laburrak egin behar izaten ditut. Asteazkenean zehar albiste garrantzitsuren bat izan bada, horren inguruko erreportajeren bat egiten dut. Elkarrizketatxoren bat ere sartu liteke, baina beti ere dida batean. Larunbatekoa zuzene-

koa izaten da, igandekoa ez. Zuzeneko ateratzerako, elkarrizketak lotuta eta albisteak prestatuta izaten ditut. Estudio batetik irten, eta bestean sartzen naiz, grabatuta uzteko.

Jakoba Rekondo eta Pello Zabalen tarteak garrantzia du entzuleentzat, ezta?

Jakoba Rekondok jarraitzaile pila ditu. Etxeko loreez, frutabetak gaixotasunez, baratza azaroez edo ilargiak nekazaritzan duen eraginaz hitz egiten du, besteak beste. Jende askok deitzen du tarte horretan. Zuzenean, txandarik ezin emanda ibiltzen naiz. E-posta pila bidaltzen dizkigute, erantzungailuan ere mezu pila uzten dituzte. Pello Zabalak, berriaz, aste osoan izango den eguraldia azaltzen du, eta honek ere zale asko ditu. Jendea adi-adi egoten da. Ez du esaten gaur eguraldi hau egingo du eta bihar bestea, aste osokoa baizik. Jendeari asko gustatzen zaionez, igandean errepikatu egiten dugu.

Lanean noiz hasi zinen? Zer lan egin dituzu?

Karrerako hirugarren mailan nengoela hasi nintzen. Hurrengo urtean ordezkaketak egiten hasi nintzen. Lehenengo albistegian eta, gero, Martin Tejeriaren *Kostaldeko Trena* saioan. Goizaldeko albistegian ere egon nintzen. Pello Zabalak liburua idazteko urte eta erdiko eszedentzia hartu zuzenean, eguraldia ematen egon nintzen tarte horretan. Ordueroko albistegiak ematen ere ibilia naiz. Bestalde, baita telebistako albistegietan ere.

Etorkizunera begira proiekturik ba al duzu?

Une honetan oso gustura nago. Ez dakit zer izango den, ea noiz arte jarraitzen dudana. Kalera asko ateratzen gara, prentsaurreko askotara. Kaleko lana asko gustatzen zait. Beti bulegoan sartuta egotea ez da atsegina. Gainera, talde polita dugu. Horrela jarraitzen dudana bitartean, ez dut aldatzeko asmorik, ezta gogorik ere, gustura nago eta.*

“Arretaz ibili beharra da, zerbait bitxia aurkitu nahi bada”

“Askok ateratzen gara kalera. Ez da atsegina bulegoan sartuta egotea”

Tradizioaren gordeleku?

U

da bukaerak beti gure inguruan izarren distira ekartzen digu. Baina, ez dago Xoxote edo Erlo tontorretara igo beharrik beraiek ikustera. Nahikoa dugu Donostiatik bueltatxo bat ematea beraien argiaz ikusteko eta gozatzeko. Urtero, Donostiako Zinemaldiak ideia, pentsakera eta kultura desberdinen testigantza ematen digu. Aurtten, nazioarteko ekimen honetan euskal kulturaren testigantza ikusi dugu, Jose Maria de Orbek zuzenduriko *Aita* filmaren bitartez. Berau ikustera zihoan ikusleen artean aurkitu nintzen eta nire txundidurarako bertan ez zen aitatasunaren inguruko hausnarketarik egiten baizik eta desagertzeaz dagoen bizimodu baten inguruan zihoan. Astigarrako Murgia Jauregia eta herriko parrokoa ziren protagonista nagusiak eta ikusi eta gero galdera hau etorri zen nire burura. Desagertzeaz dagoen bizimodu berri baten aurrean gaude? Euskal tradizioen gordeleku dira gure baserriak?

XIV. mendean Murgia bezalako dorretxeak zeuden Gipuzkoako inguru desberdinetan, gure inguruan Loiolatarren dorretxea delarik nabarmenena. Baina, beraientzat lan egiten zuten nekazariak beraien tolaeren inguruan gaur egun baserri bezala ezagutzen ditugun hastapenak izan zirelarik. Baserri tradizional horren eredu polita aurkitu dezakegu gaur egun Ezkio-Itsason kokatutako Igartubeiti baserrian. Bertan gaur egungo gazteek museo bezala antolatua dagoen baserri bat aurkitu dezakete eta galtzeaz dagoen bizimodu baten testigantza gozatu dezakete. Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako proiektua dugu eta benetan pena merezi du bisita egitea. Horrelako ekimenen inguruan galdera bat luzatu nahi nizuke. Baserria zaindu beharreko zerbait da? Baserriak dira gure tradizioaren eta aintzinako bizimoduaren gordeleku?

Aurreko bi galderak ez dira beharbada bai edo ez erantzun beharreko galdera sinpleak, baina, garbi dago euskal baserria izan dela



|||||||markel mendizabal||||

|||Herrietako gune historikoak berritu dira...
Baina, ez da berdina gertatu inguruko baserriekin

eta oraindik dela kasu askotan gure kulturaren testigantza bisual handienetarikoa. Beraiek izan dira euskal kultura eta baloreen testigu eta gordeleku eta herri bezala erakuntza aldetik berezitasuna eman diguna. Honen aurrean zilegi da galdetzea: zaindu beharreko elementuak dira baserriak? Euskal ondarea dira?

Baserriak bizirik

Igartubeitiren eredia aipatu dut aurrerago, baina, gure herrian eta Urola bailaran orokorrean hain ondo zaindurik ez ditugun baserri asko aurki ditzakegu. Penagarria da batzutan beraien egoera ikustea eta beharrezkoa ematen du neurriak artesa. Egia da asko eguneratu direla landako turismoari esker baina beste askok ez dute aukera hori izan.

Aldiz, eta zorionez diot, herrietako gune historikoak berritu dira eta Azpeitiko kasua ez da salbuespena izan. Baina, ez da berdina gertatu inguruko baserriekin. Kasu askotan bota eta berriak eraiki dira, baina, oraindik badaude Erdi Aroko aztarnak gorde eta egoera txarrean dauden baserriak.✱





lora-etxea...

Kimubat 
ASTE BUKAERAN IREKIA

Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tlfnoa.943 150085 www.kimubat.com

ORDULARI



Jose de Artetxe, 10
Tel. 943 81 52 44

arte eta diseinu ikastegia

di

-  **Dibujo eta eskulanak** (haurrak) 17:30/19:00
-  **Pintura** 17:30/19:00
-  **Talla** 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808

LUBA

aholkularitza
laborala, fiskala, kontablea

- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75

KIRURI



JATETXE

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62



FREEMAN  **PORTER**

skunkfunk
www.skunkfunk.com



ZEN SPIRIT

amarillolimon

2 TWO



Paulo VI 19 Azpeitia - Tlf. 943 81 10 53
www.sorgindenda.com



Gizartean gazteok zer?!

Errealitatea aldatzen ari zaigu gazteoi. Orain arte ezagutu dugun bizi-modua aldatzen ari zaigu eta egoera berrietara etengabe moldatzen ikasten ari gara, hori baita bizirauteko dugun arma bakarra. Naufragio batean bezala, edozein egur puskari heltzen diogu. Etortzen zaiguna edo ematen digutena hartu eta nola hala pasatu. Langabeziako zerrendetan gaude, zorpetuen zerrendetan, babes ofizialeko etxebizitzak (ordain ditzakegun bakarrak) lortzeko zerrendetan gaude. Zuloan gaude, lotuak gaude, izorratuta gaude. Eta oztopoen aurrean familiaratik, lantegitik edo gobernutik eskua noiz luzatuko zain bizi gara. Beti zain.

Ez dakigu lan honek noiz arte iraungo digun edo noiz lortuko dugun lan bat, ez dakigu emantzipatuta bizitzen jarraitzeko modurik izango dugun ala noizbait gurasoen etxetik joateko modurik izango dugun, ez dakigu 35 edo 40 urte bete aurretik (eta konturatzerako iritsiko dira) familia kokkor bat osatzeko modurik (ekonomikorik) izango dugun, geure etxe propiorik inoiz izango ote dugun, inoiz 1.000 eurokoa baino nomina altuagoa izango ote dugun.

Baina, bagoaz, ttirriki-ttarraka, aurrera. Nora orde? Nahi ala ez nahi, gure gurasoen bizimodura hurbiltzera egiten dugu. Lana majo egin dutela eta egiten dutela ukatzerik ez dago, eta ikusi dugu lana bapo eginda bizimodu 'erosoa' izan dutela (haientzat orain ere gauzak aldatzen ari badira ere). Guk, orde, barneratu behar genuke, agian, lana bapo eginda ere inoiz ezingo dugula bizi-maila horretara iritsi. Hasteko, lehen etxeek 5 edo 10 milioi pezeta artean balio zutelako, edo gure gurasoen belaunaldiko gehienek lanpostu finkoak edo finko samarrak izan dituztelako. Gure egoera eta euren ez da berdina. Bizimoduak, beraz, ezin du berdina izan, helburuek ezin dute berdinak izan.

Gauden egoeran, krisi madarikatu hau behingoz desagertzeko zain gaude. Konpon-



|||||**olatz prat**|||||

|||Irina, ura eta gatza hartu eta mamia oratu, elkarrekin labe bat eraiki eta geure ogia egiten has gaitezke

du dezala sortu duenak! Baina, krisiak luze iraungo du, krisian dagoena ez baita ekonomia soilik. Ezagutu dugun bizi-eredua bera da krisian dagoena. Eta geuk diseinatu beharko dugu geure etorkizuna, geure neurriko bizimodu bat, bizitzea tokatu zaigun garaiarekin bat datorren bizimodu bat.

Sormenari lekua

Ematen dizkiguten ogi apurretatik bizitzen jarraitu dezakegu, ala irina, ura eta gatza hartu eta mamia oratu, elkarrekin labe bat eraiki eta geure ogia egiten has gaitezke. Geure esku dago. Ikasketadun jendea gara, gizarte honen alde gauza onak egiteko kapaz gara eta sormena lantzeko garaia iritsi da, geure kasa pentsatzen eta sortzen hasteko. Gizarteko gehiengoak gara, baina, ez gara gizartearen zilborra. Etorkizuna ez da gugan amaitzen, gure atzetik asko etorriko dira eta haien gatik ere badagokigu zerbait egitea, gure aurrekoek gugatik egin duten moduan.

Nik ez daukat soluziorik, ideiak ditut eta nik bezala, beste gazte guztiok. Ideia horiek mahai gainera atera eta gizartean izan behar dugun funtzioak eta gure ametsen hitz egiten hasi behar genuke berandu izan aurretik.✕





euskara eta komunikazioa

Diseinua:

- Erakundeen irudi korporatiboa: logotipoa, papertegia...
- Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
- Errotuluak eta seinaleztapena
- Mailing-ak, perching-ak, parabrising-ak...
- Iragarkiak


HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Puntadak eman eta eman, euskaraz.

Gustu handiz egingo ditu gortinak jostun honek. Lan horiek egiten dituela iragartzen duen kartela euskaraz erakuslehoan itsatsita ikusteak poz ematen du. 📎 **Uztarria**

**BEHERA.** H-ri omenaldia.

Lan Mobel ISB taldearen webgunean zegoen zintzilikatuta beheko iragarkia. Iraurgi baloia saskiratzen abila bada ere, h-ren erabilpenaz badu zer ikasia. 📎 **Uztarria**



Antonio Aldalur.

ESANA DAGO

“Guk maitasun handiarekin egin dugu lana, eta bueltan ere jaso dugu emandakoa”

ANTONIO ALDALUR
Zelatungo bordako
arduradun ohia

“Oso gustura bukatu nuen Azpeitian izandako esperientziarekin; lagun bikainak egin nituen. Ez sinestekoa da txirrindularitzarekiko alde hartan dagoen zaletasuna, Madrilen aldean desberdin bizi dute. Handik gehien gustatzen zaidana jatetxeak dira”

ALBERTO CONTADOR
Txirrindularia



kutxa



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Penalti

Nahi gabe haurdun gelditu eta ezkondu egin behar. Gure garaian egoera horri penaltiz ezkondu beharra deitzen genion. Ezustean sortutakoa, askotan, bederatzi hilabetera maitagarri eta ezinbesteko bihurtzen da etxe gehienetan.

Orain urtebete, gure herriko etxe askotan izan zuten penaltia. Nahi gabe, eta desio gabe, etxeok hartu behar. Jatun eskasa eta lo-galerazle aparta. Bataiatu beharrik gabe izen eta guzti etorri zen. ERE, ditxosoko ere. Euskararen ereak gehitu egiten badu, etxeko sukalderraino inolako baimenik gabe

sartzen den honek daukazu apurra kendu egiten du. Positiboa eta baikorra kendu, negatiboa eta ezkorra gehitu.

Penalti guztiak ez dira berdinak, baina gure bi penaltiek antzik, izan, badute. Aurrera egin nahi bada, barneratu, onartu eta lagun berriarekin bizitzera ohitu. Hori, edo bestela jai duzu, algara gutxi eta negar ugari duen jaia.

Etxe bakoitzean, bakoitzak egoera berri hau bere erara biziko badu ere (ez da gozoa eta xamurra izango), urtebete pasatu ondoren, herriak lagun berria onartu eta barneratu duela esango nuke. Herritarrek EREaz natu-



txetxu urbieta

raltasunez hitz egiten dute eta gutxi dira hitz hori aipatu gabeko solasaldiak. EREa parkean, igerilekuan, tabernan, bazter guztietan ageri da. Eta, jendea, etxeko atletik kanpo begiratura, beti ere, lasai ikusten da. Ze erremedio esango duzue baina, niri, pentsatze hutsarekin kopeta izerdi hotzez blai egiten zait.

Jakina dena, ERE txikiak bere ondoren beste anaia, arreba edo ahizpa ekarriko duela. Izan PARO ala izan LANA, alde pittin bat bada. Pobrea izan eta aberatsen bizitza imitatzen jarraitu ahal izateko, bere txarrean, LANA hobe. Eta duina bada, askoz hobe.✘

IKUSTEKO!



▲‘GOENKALE’ ALA FUTBOLA?

Etxeko sofán eseri eta telebistako mandoaren jabe egin nahi izaten dugu denok. Zer ikusi erabakitzerako garaian, etxean ez ezik, Korrale tabernan ere izaten dute ados jarri ezina eta destitxa. Demokrazian bizi garenez, zer erabakiko eta, bozketa egitea. Zerbitzariak Uztarriari komentatu dionez, ordea, tongo asko izan da Korraleko hauteskundeetan. ✉️ Ainitze Agirrezabala✘

|||URRIKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...|||



Jostailu handiegiak

BETHARRAM. Bitxia da iraila hasieran ateratako irudia. Artean txikiak eskolan hasi ez eta asko patioari begira jartzen ziren. Zer izango ote jolastokian? Ikargarrizko makinak lurra zulatzen. Azken boladan Azpeitian moda-modan jarri diren obretako bat. Baina, haurren zalantza zen ea eskolara hasteko aukerarik izango ote zuten. Beste askok, ordea, obrak ez amaitzeko esperantza ere ez zuten galduko.



alex silva



Zurrunbilo

URRESTILLA. Pixkanaka gutxieneko zerbituz hornitzen hasi da Urrestilla. Liburutegia, haur eskola. Lehen ere bizitzeko leku lasaia baten, orain zerbitzuen eskaintza ederra ari da lortzen. Agian, Azpeitiari independentzia eskatu eta Gipuzkoako udalerrien artean kokatuko da.



Neguan ere kanpoko igerilekuan

OBRAK. Sanjuandegiko kanpoko igerilekuko moldaketak hasi dira. Datorren urtetik aurrera, kanpoko igerilekua ez dugu udan bakarrik erabiliko; neguan, kanpoaldean elurra ari duen bitartean, igerilekuaz gozatzeko aukera izango dugu. Hori bai, kanpoko igerilekuan estaliko

duten zatian, ez bestean. Udan, berriz, belar zati bat gehiago ere izango da. Horrela, erabiltzaile gehiago izango dira Azpeitiko igerilekuan. Espero dezagun datorren urtean eguraldia lagun izatea eta estali gabeko igerilekua berriro jendez gainezka ikustea.✳

INKESTA

zer moduz hasi duzu ikasturte berria?

Ainitze Agirrezabala

NAIARA ESCUDERO

7 urte



"LH-ko 2. maila hasi naiz egiten. Tokatu zaizkidan irakasleekin oso

gustura nago. Plastika da gehien gustatzen zaidan gaia, eskulanak gogoko baitituz, eta gutxiena, berriez, matematika. Zenbakiak ez ditut oso gustuko".

FRANCISCO MINDA

9 urte



"Gustura bueltatu naiz ikastolara, baina hala ere nahiago dut

oporretan egotea. Lagun asko ditut gelan. Gimnasia dut gogokoena eta gutxiena ingurumena gustatzen zait".

INTZA AIZPITARTE

7 urte



"Gela polita dut oso. Halere, gelan neskak baino mutil gehiago

daude eta oso bihurriak dira. Asteazkenetan pozik joaten naiz ikastolara, bazkaltzera amamarengana joaten bainaiz".

ENERITZ LANDA

7 urte



"Ikastolan hasteak pena handia eman dit, udan ikaragarri

ondo pasa baitut igerilekuan lagunekin jolasean. Hala ere, pozik joaten naiz, lagun handiak baitituz gelan".*

Bost urte bizia ematen

Gazte mugimenduaren historia azaltzen duen liburu bat kuxkuxeatzen ari nintzela, gazte lokal baten beharraz ziharduen 70eko hamarkada amaierako panfleto bat aurkitu nuen aurrekoan. Hara non eta, orduko Azpeitiko Gazte Asanbladarena. Bertan, jaiak antolatu, herriko arazoengatik inguruan eztabaidatu eta hauei aurre egiteko, edota ekitaldiak antolatzeke gazte lokal bat exijitzen zitzaion Udalarari.

Orduz geroztik, pasa dira bai hamarkada batzuk. Orduan gazte zirenen txima luzeak lekutan gelditu dira, eta iraultza ahoz aho zerabilten haiek auskalo non galdu ziren. Baina, gazte belaunaldi berriak aurrekoen lekukoa hartzen joan dira, inoiz sua itzali gabe. Eta egutegiko orriak ez ezik, egutegiak ere aldatzen zihoazen heinean, herriak hamaika okupazio, desalojo eta gazte borroka bizi izan ditu urteotan. Orduan agintean zen alderdia ere azaldu omen zen behin espainiar komunikabideetan, gaztetxe eske zebiltzanak taliban batzuk zirela esanez. Olazko pla-



yuri agirre

zako koloretako kristalen atzetik, urduritasunez ikusi izan dute beti sistemaren atzamarretatik ihes egiten duen gune oro.

Eta, konturatzerako, gaztetxe berriak bost urte bete ditu. Hasieran pabiloi hotz bat besterik ez zena, gutxinaka baina etenik gabe, edukiz eta kolorez betetzen joan da. Gaur egun, herriko musika taldeen eskenatokia da, obra faranonikoen gainetik herriko kultur ekintzetarako azpiegitura. Gazteen aldarrikapen bozgorailua da, etxebizitza eskubidea dela ohiukatzeke topagunea, saninazioetan marea arrosa eragin zuen ilargia... Harrokeriarik gabe, baina harrotasunez, gaztetxea herriari bizia emateko oinarrietako bat dela ozen esan daiteke.

Ezin iragarri etorkizunak zer ekarriko duen. Noski, datorrena orainaren ondorioa da, gaurko borroken emaitza. Kanpo faktoreak kontuan hartu arren, biharko egunari ateak irekiko dizkion giltza herriko gazteen eskuetan dago.*

galDETZEN hasita, zentzurik ba al du sanjuandegin rock jaialdia eta plazan kontzertua egun berean izateak? Uztarria

Erljioaz mintzo

Aldian behin, erlijioarekin, kristau sinesmenarekin edota eliz bizitzarekin zerikusia duen gai bat edo beste plazaratu ohi da gure arteko komunikabideetan.

Eliztarren eta eliz agintarien jokabideak, gure errieto eta ohiturak... mintzagai izan dira. Eliz arduradun eta ordezkariak gizarte bizitzako hainbat gairen aurrean zabalduak iritzi eta mezuak eztabaida su-tsua piztu izan dute.

Era batera edo bestera, erlijioak bizirik dirau giza-banakoen kontzientzian ezezik, gizarte bizitzaren adierazpen publikoetan ere.

Gai hau hartu zuten gogoan Bilbon ekainean, "Aniztasuna, erlijioak eta bizikidetasuna" titulupean ospatutako Jardunaldietan. Gure arteko Joxe Arregiren hitzetan, "Gure gizarte modernoak bere baitan dituen zenbait gogoeta saihestezin eta erabakigarri plazaratu dituzte Jardunaldi hauek: esate baterako, eta labor beharrez:



kepa susperregi

1. Erljioa gertakari soziala da, eta gizarteak ezin die muzin egin dimentsio nahiz erronka sozial horiei.

2. Sekularizazio garai baten ostean "desekularizazio" garai bat bizi dugu gaur.


3. Erljioentzat mehatxu nagusia ez da dagoeneko gizartearen sekularizazioa, erlijioen beraien fundamentalismoa baizik.

4. Nahiz eta gizartea (gaur ere edo berriro) neurri handi batean "erlijiosoa" izan, anizta da, eta aniztasun horretan elkarbizitzaren baldintza nagusia "laikotasuna" da, alegia: gizarte arazoak ezin dira erlijio erakundeen esanera erabaki, hiritarren borondatearen esanera baizik.

5. Erljiodunek integrismo erlijiosotik ihes egin behar dute, demokrazian bizitzen ikasiz; erlijio gabeak ere "integrismo laizistatik" ihes egin behar dute, hiritar askoren erlijio bizipena errespetatuz eta bizipen horrek dituen dimentsio sozialei egoki erantzuten saiatuz.*



andoni salegi



Bankarrota

Andereño batek esan dit eskolako zuzendaritzak beste kontserje bat eskatu diola udaletxeari. Ez, ez da ni ordezkatzeko edo ordezkatu nahi nautela, askok aukera hori pozik hartuko luketen arren. Eskola bi eraikuntzatan dago, eta eskolak duen beste eraikuntzarako litzateke bigarren kontserje hori.

Pena da etorri zaidan lehenengo sentimendua. Erruki nik pasatu dudaren laurdena pasatu behar baldin badu etor litekeen kontserje horrek. Makina bat agindu jaso beharko du 'zer moduz?' triste bat entzun aurretik. Eta udaletxeko langilea izanagatik ere, udaletxeko agintariengandik hori ere ez. Agian ez dute astirik izango. Eskolan denek uste dute nahierara agintzeko eskubidea dutela, eta kontserjeak, morroi partikular balitz moduan, eurek agindutakoa bete beste eginkizunik ez duela. Salbuespenak gero eta gehiago diren arren, eta batzuren errespetu jarrera aipatu behar den arren, irakasleen artean hori da na-

gusi den mentalitatea. Hirurogei agintari, bider agintari bakoitzeko hainbat agindu, agindu bakoitza berehalakoan bete behar delarik. Hirurogei agintari, denak aldi berean, eta langile bakarra.

Eta ez da lan honek dena txarra duela, ez. Hirurogei nagusi eta langile bakarra izan arren baditu bere alde onak ere. Umeekin jolas txikiak egiteak eta beraien irrifarra ikus-teak egun osoa alai dezake. Umeak erdi lotsatuta etortzen zaizkidanean eta irrifarre zabal batekin joaten direnean pozak asko balio du. Ikasgelan niregana etortzeko boluntarioak eskatu eta ia denek eskua altxatzen dutela jakiteak asebate egiten nau. Guzti horrek asko laguntzen du lanerako. Eta izango ditu abantaila gehiago ere, orain esateko gauza ez banaiz ere.

Ez dakit udaletxeak borondaterik izango duen kontserje berri hori kontratatatzeko. Borondatea diot, eta belarrira min egiten dit. Bo-



|||||||joxin iturriotz|||||

rondatea erabiltzen da langileari tokatzen ez zaiona edo tokatzen zaiona baino gehiago eskatu behar zaionean. Orduan, borondate onez dena konpon liteke. Bestaldera denean, ustez agintariei dagokienean borondatea jartzea, legeak galarazi egiten diete. Horrela koetan legeak agintzen du, eta borondatea jartzea ezinezkoa da. Borondatea ere, kome-nientzizkoa denean bakarrik da borondatea, antza denez.

Ez dakit udaletxeak eskaera onartuko duen. Agian presupuestorik eza eta partidarik eza jarriko dute arrazoi bigarren kontserjea ez hartzeko. Edo agian, izango dute borondatea instituziotik instituziora ondo gelditzeko, elkar asetzeko, elkarri mesedeak trukatzeko. Borondatea dirutan neurtuko balitz, argi daukat langileekiko borondatearen udaletxeko kutxa hutsik dagoena. Ez presupuestorik, ez partidarik. Zentimorik ez kontatzeko. Bankarrota!✘

heldu uztarriaren amuari

Uztarriako komunikazio proiektuko bazkide egin zaitezke, eta horrekin, gure proiektu hau zeure ere egin. Oso erraza da.

izen-abizenak: helbidea:

enra edo nan zenbakia: telefonoa:

kontu korrontea:

Perez Arregi 1 behea 20730 Azpeitia

uztarria



▲ EGUNA HASTEKO PRESTATZEN.

Goizeko 07:20 alderako Udalak Damaso auzoan duen biltegian elkartzen dira langile guztiak, lanerako egokia den arropa eta oinetakoak jantzi, erremintak furgonetan sartu eta eguna hasteko. Urte honetan 100 lagun baino gehiagok eman dute izena brigadan, baina aukeraketa bat egin eta 32 lagun dabilta lanean, talde desberdinetan banatuta. Goiko argazkian, Udaleko langileak aldageletan jazten.

Brigadako peoiak

Krisiaren atzaparrak harrapatu eta lanik gabe geratutako hainbat herritar udaletxeko brigadan lan desberdinak ari dira egiten. 📝👁️ Ainitze Agirrezabala



▲ LANABESAK FURGONETAN SARTZEN .

Motozerra, sasi-garbitzeko makina, aiotza... eta ibai bazterrak garbitzeko beharrezkoak diren tresna guztiak hartzen dituzte. Udaleko brigadan lanean dihardutenek hiru, lau edo sei hilabeteko kontratuak dituzte. Argazkikoek urte erdikoa dute eta Berrosetatik hasi eta Lasako gasolindegira bitarteko zatia eta Ibai-Eder-ko bazterrak garbitzea da euren lana.

► SASARTEAN.

Krisia medio, lanik gabe geratu dira herritar asko eta horiei brigadan lan desberdinak egiteko aukera eskaintzen die Udalak. Uztarriarekin hitz egin duten langile askok eraikuntzan eta egurraren eta metalaren sektoreetan egiten zuten lana. Eskubiko argazkian, Iñaki Agirre eta Jabier Zabaleta sasi-garbitzeko makinarekin lanean.





▲ ZUHAITZAK SOILTZEN.

Ibai bazterretako zuhaitzak soiltzea garrantzitsua da ingurua garbi mantenduko bada. Argazkian, Iñaki Esnaola lanean.



▲ FARDOAK OSATZEN.

Soildutako zuhaitzetako adarrak bildu, sokarekin lotu eta pronto uzten dituzte kamioiak eraman ditzan.



▲ HAU DUK/N TXUKUNDADEA!

Langileen arabera, erreka bazterrak garbitzeko garaian edozer gauza bilatu izan dute: plastikozko poltsak, aterki asko, baloiak, konpresak, kontainerra eta herri guneko zatian etxetresna elektrikoak: irabiagailuak, ile-lehorgailua...

◀ ZUBIPEAN GARBIKETA LANEAN.

Zubietako zutoinetan sastraka, egur eta adarrez gain era guztietako zaborra pilatzen da.



▲ ZEPAK MOZTEN.

Munategiko Berroseta baserriaren paretik hasi eta Lasaoko Uresaundi baserria bitarteko ibilbidean 70 tona egur bildu ditu brigadako langile talde honek. Argazkian, Iraitz Segurola motozerrarekin makalari zepak moztzen.



▲ MOKADUTXOAREN GARAIA.

Hiru bat ordu lana egin-eta gero, 10:30ak aldera mokadutxo bat egiten dute, sabela engainatze aldera. Argazkian, ezker eskubi, Hussain Azaom, Eñaut Aldalur, Iñaki Agirre, Iñaki Esnaola, Inazio Odriozola, Iraitz Segurola eta Jabier Zabaleta. ▶

Xarma handiko saltokiak

Belaunaldi batetik bestera, oinordetzan jasotako negozio ugari izan da martxan Azpeitian, eta horietako askok ospe handia lortu izan dute. 📞📍 Ainitze Agirrezabala

Burdindegia, kinkila denda, *ultramarinos*-a, drogeria, bitxidenda... Barrura sartu eta generoz betetako garai bateko saltoki haietako apala eta bitri-netan denetik aurkitu zitekeen. Belaunaldiz-belaunaldi, eskuz-esku, familian heredatzen joan diren negozioak izan dira. Bakarren batek oraindik atea irekita jarraitzen badu ere, gehienak itxi ziren, eta haien oroitze-penak zuri-beltzeko argazkietan jasotzen dira. Herrian izan ziren eta, oraindik ere martxan dirauten hainbat saltokitako jabeekin hitz egin du Uztarriak.

Historia luzea eta oraindik atea zabalik dituen Goiko kaleko Valverdeneko drogeria da. Barrura sartu eta zirrikitu guztiak, goi eta behe, beteta izaten ditu. Urteetan, hara inoiz erostera joan denak ongi asko daki, bi ahizpa, Rosario eta Juanita, izaten zirela jendea atenditzen. Ahizpetako bat, ordea, Rosario, hil zen eta besteak, Juanitak, orain bost urte istripua eduki —denda atarian kamioi batek zapaldu zuen— zuenean pasatu zion erreleboa ilobari, Urkori. Nolanahi ere, goizero dendako txoko batean eserita han egoten da Juanita



Benito Guivert Erdi kalean zuen denda atarian.

Valverde, ilobari negozioaren sekretuak erakusteko ahaleginean. Juanita Valverdek Uztarriari kontatu dionez amaren aldeko osaba solteroa Zumarragatik etorri eta harategia ireki zuen orain drogeria den lekuan. “1924a-edo izango zen. Nire ama eta amama ere Azpeitira etorri ziren bizitzera. Harategi gainean etxea erosi eta han jarri ziren bizitzen eta Juanitaren ama ere bere amaren etxera ezkondu eta sei seme-alaba izan zituen. “Luzaroan lana egin ostean, harategia itxi egin zuen, eta

urteetan hutsik egon zen lokala. 80ko hamarkadan, drogeria ireki genuen. Rosariok organo fabrika egiten zuen lana eta arratsalde egoten zen nirekin denda”. Generoa Donostiko eta Bilboko biltegietatik La Guipuzcoana autobusean ekartzen zutela adierazi du: “Kolonia 16 litroko garrafoietan ekartzen genuen, baita agoarrasa ere. Inbutu batekin litroko botilara pasatzen nuen, handik jendeak zenbat nahi zuen, saltzeko. 50cl kolonia 3pta kostatzen zen eta gaur adinako aukerarik ez zegoen orduan”. Orain farrez gogortzen badu ere, “pena ez ezik, amorru handia” ere eman ziola dio, 16 litroko koloniaren garrafoia puskatu baitzitzaion behin. Makillajea erostera ere haienera emakumeak joaten zirela dio: “Makillajerik ez zen garaian, berriz, inprentan paper gorria erosi eta hala ematen zuten koloretea masailetan”.

Garaiak desberdinak izanagatik, “oraingok hobeak ez” direla dio. “Garai batean garbi-ketako produktuak askoz ere gehiago saltzen ziren. Supermerkatu handiekin konpetentzia handia dugu. Hiru daude gero herrian! Eroski, Super BM eta Schleicker”. Ne-



Juanita Valverde eta haren iloba Urko Valverde, Goiko kalen duten drogeria atarian.

gozioa duenak, badaki, bezero onaren alboan beti egoten dela dagoen lekutik hartzen duena ere. “Oraindik ere badituzte eta haiek zaindu egin behar. Ez daude asko, kontatu ahala, bakan batzuk dira. Haiek ez dira lotsatzen. Nik ez diet ezer esaten, baina ba al dakizu nola konpontzen dudan? Kontua egiterakoan hartu duen hura ere sartuta. Eta, esaten badu gehiegi kobratu diodala, poltsan sartu duena ere kontuan gehitu dudala erantzuten diot. Zer egingo duzu ba, horrelakoak dira”.

Baina, dena ez da gazia Valverdetarrenean. Jendearen ateraldiekin liburu mardula idatziko luke. “Egunerokoan beti daude zontzonkeriak. 20 urtean produktu bera erosten jardun eta izenik ikasi ez duen jendea dago. Asmatu egin behar zer nahi duen. Arratoia-rentzako pozoia eskatu beharrean bitaminak eskatu zizkigun beste behin batek”.

Iloba “saltzaile ona” dela harro esaten du izeba Juanitak. “Poza ematen dit, negozioak segizioa duela ikusteak”.

Guibert, guztietan mitikoena

Historian atzera egin eta ibilbide luzeeneko saltokia Guibert da (gaur egun Almacenes

Etxeberria). 1850ean, Benito Guibert Frantziatik etorri eta ‘Joyeria, quincalla y ferreteria de hermanos Guibert e hijo’ ireki zuen, Erdikalean. Almacenes Etxeberriako komertzial arduradun Marian Etxeberriaren esanetan “izugarritzko arrakasta” lortu zuen bazar hark. “Frantziatik inportatzen zuen generoa, eta inguru hauetan bilatu ezin ziren gauzak saltzen zituen. Ondarroatik, Mutrikutik... etortzen zen jendea erostera. Burdindegia, bitxitegia, optika eta drogeria zen. Garai artan gehien saltzen ziren gauzak errosarioak, kandelak, aitzurrak, oilo sareak... ziren. Oilo sarea mozteko Elizkaleko trafikoa mozten zuten, nahiz eta garai artan kotxe askorik ibili ez”.

Gero, Benito Guibert semeak eta biloba Bixentek hartu zuten negozioaren ardura. “Orduan, gehiena saltzen zena nekazaritzarako eta sukaldariko tresneria zen. 1974an, nire aitak, bertako langile Felix Etxeberriak hartu zuen jabetza eta bere izena eman zion negozioari: Almacenes Etxeberria”. Urrestildarra zen, Antxita baserrikoa eta hamaika urterako hasi zen han lanean. Marianen esanetan, garai artan, bere aitaren erroka herrian industria sortu zenez, herritarrei zerbitzua

ematen jarraitzea, baina enpresen behar berriei erantzutea zen. Hala, 1982an biltegi berri bat ireki zuen Landetan. Geroztik, Felixen bi alabek, Marianek eta Olatzek, hartu dute negozioaren ardura: “Industria hornidura mailan, Europako enpresak neurri handikoak dira eta haien mehatxua aurreikusiz, Arrasateko Memesa eta Abadiñoko Lausa enprekin bat egin eta SEIN taldea sortu genuen, 2005ean”. Erdikaleko dendan, berri, lurrindegia jartzea erabaki zuten.

Madrazotarren ehunak

Guibertekin batera, ibilbide oparoa izandako saltokia da Madrazotarrena ere. Ehun urtetik gorako historia, eta hiru belaunaldik ezagutu eta lana egindako negozioa. Halabeharrez, lehenengo mundu gerran, 1914an, Montes de Pas-etik (Kantabria) jendetza etorri zen inguru hauetara. Madrazotarren dinastiakoak diren Prexen eta Mari Karmen Madrazo lehengusuek kontaktzen dutenez, haien aitona ere hala etorritakoa zen eta inguru hauetan ehuna saltzera dedikatzen zen: “Joan Manuel Madrazo alarguna zen eta haren lehen emaztea Zarauzko Maza ehun etxekoa. Bi seme-►

►alaba eduki eta biak hil zitzaizkien". Azpeitiko azokan, ordea, gero bere emazte izango zen Clotilde Garciari aitona "begia bota eta denbora gutxira ezkondu" zirela kontatzen dute. "Gure amona frantses batekin etortzen zen, kinkila postuarekin".

Hasieran, denda zabaldu aurretik, aitona-amonak ehuna saltzen baserriz-baserri ibili zirela diote, bi seme-alaba zaharrenak lepotarrean hartuta. "Aurrezten joan ahala, alokairuan lokala hartu zuten Kanpaxkoan lehen-bizi eta orain Luzio Alberdiren denda den lekuan gero. 20. hamarkada hasieran Erdi kaleko Indiano baten etxea erosi zuen aitona eta etxabea denda zabaldu zuen".

Aitonaren negozioekin haren bi semeek, Silbestrek eta Ermenegildok, jarraitu zuten. Bien artean lursaila erosi zuten Astotegi aurrean eta etxea eraiki eta behean ehun denda zabaldu zuten, 1936an. "El Corte Inglesa zirudien: andreentzako fajak, mantelinak, josteko makinak, artilea... saltzen zituzten. Arreoa egitera gurdiekin etortzen ziren baserrietatik". Bi lehengusuek gogoan dute gurasoak urtean hiru bat aldiz Bartzelonara joan eta generoz beteta kamioiak ekartzen zituztela: "Biltegi bezala ere funtzionatzen zuen eta kantitate handitan saltzen genuen generoa Errenteriako, Bergarako, Eibarko... dendetara. Bezero asko eta onak genituen. Gure saltokiak martxa handia zuen. Madrazorenean sekula ez zen beherapenik egiten, erosketarekin batera zerbait oparitu bai, baina jarritako prezioa sakratua zen gurean. Oso genero ona saltzen genuen. Hemen eta inguruan bakarra zen; ez zuen konpetentziarik. Azpeitian aurreneko manikiak gure denda jarri ziren".

Prexenen aita hil zenean, dendaren ardura Ermenegildok eta honen alaba Mari Karmenek hartu zuten. Hermenegildo hiltzean Mari Karmen geratu zen dendarekin. "Gure ondorengoek ikasketak zituzten eta negozioak segiziorik ez zuenez itxi egin genuen denda. Han bertan egin genuen bankete eder batekin ospatu genuen itxiera familia osoak".

Plaza txikian, Kanpaxatarrak

Kanpaxanekoa ere hotsandiko negozioa izan da herrian, urteetan. Manuel Altuna izan da hango azken saltzailea. "Denda hori nik betidanik ezagutu nuen hor [Plaza Txikian]. Baina, kontatzen zidatenez, aurretik Elizkalean, orain Ravella dagoen lekuan, eduki zuen izebak, baina hura txiki geratu eta lekuz aldatu zuen, Plaza Txikira". 17 urterekin utzi zuen kolegioa Altunak. "Ez nuen gehiago ikasten segitu nahi izan eta aitari laguntzen hasi nin-



zen. Aita izatez kontratista zen, baina lan hura utzi eta bi biltegi ireki zituen, bata Enparan kalean eta, bestea, Eliz kalean: porlana, teilak, adreiluak... saltzen genituen. Astearte goizetan, berriz, azoka zenez, izeba solterari laguntzen nion denda. Astearte goizak eta saninazio bezpera egun sakratuak izaten ziren. Aita zahartzean negozioa utzi zuen eta, orduan, izebarekin denda geratu nintzen".

Izeba gaixotu eta erretiratu zenean, Altunaren gain geratu zen dendaren ardura. 21 urte zituen. "Izebak olio, azukrea, ogia, garbanzuak... saltzen zituen eta nik haiek kendu eta bestelako generoa jarri nuen: lurrezko tinak eta barreinuak, porzelanazko antuxunak eta pitxarrak, lapikoak, kazolak... Korrientean aukera izaten genuen. Eskubitarazpi bat metro luzeko mostradorea genuen". Dendaren gainean, bigarren pisuan bizi ziren eta

emaztea laguntzera jaisten zitzaiola kontatzen du. "Aita eta ama ere bai, gauza ziren artean. Azoka egunean jende asko ibiltzen zen eta etxepeko Bene eta Gerrantzuriko Hilari ere laguntzera etortzen ziren, soldatatzeko baten trukean. Beizamatik autobusean jaisten ziren baserritarrek eta Itziartik ere bi kamioika beteta etortzen ziren. Kliente fijoak, oso onak genituen". Garai berriein batera, ontziteria eta beirateria saltzen hasi ziren.

"Bilbotik etortzen zen biadjantea eta eskutakoa barriketan bidaltzen ziguten, lasto artean, ez puskatzeko. Tren estaziotik generoa dendara Joxe Arruti Toberak eta Alabierrek ekartzen ziguten, zaldiz karroan. Askotan, kargatu eta deskargatu, puskatuta etortzen ziren, baina oso ondo moldatzen ginen".

Urte guzti haietan anekdotak eguneroko giza ziren Kanpaxatarraren: "Bezero batek



pagatu zuela eta ez zuela, kontu garbirik atera ezin, eta gurera gehiago ez zela etorriko esanda joan zen. Astebetera bueltatu eta hala esan zigun: ‘inon ez diat bilatzen hemen bilatzen dudana, eta etorri beharra daukat’.

57 urterekin hartu zuen erretiroa Altunak. “Andrea eta biok negozio horretatik bizi izan gara eta lau seme-alaba aurrera atera. Haiek, ordea, euren ikasketekin jarraitu nahi zutela eta erreleborik eman ez zidatenean, negozioa itxi eta 4. pisua eta bajua izan ezik, bloke osoa saldu genuen, 1996an. Etxe zaharra zen oso, obra handia egin behar zen. Orain, lasai-lasai bizi gara Jainkoari eskerrak”.

Agirreneko denda, Erdikalean

Erdikalean, aldenik alde, denda franko zela kontatzen du Arantxa Agirrek. Gerra denbora baino zeozer lehenago, 1934. urtean, haren

1. Frantziatik etorri eta 1850ean ireki zuen Benito Guibertek bazarra Erdikalean. Bitrinaz eta apalaz beteta zegoen denda.
2. Osaba Jose Mari Agirrek gerra denbora baino lehenago Erdi kalean ireki zuen dendako atarian dago Arantxa Agirre.
3. Juanito Larrañagak eta haren ama Leonak urteetan eduki zuten Errebalean *ultramarios* denda. Argazkian, Juanito bezero batekin.
4. Jabier Altuna –Manuel Altunaren seme zaharrena– izeba Gregoria Altunarekin, Kanpaxaneko dendan.

osaba Jose Marik ferreteria bat ireki zuen, Jose Azpiazurekin batera, Erdikalean. “Azpeitia artean ez zen horren handia eta bi lagun mantentzeko lain negozioak ematen ez zuela eta, osaba geratu zen dendarekin. Hasiera batean, bere arrebak, Karolinak, laguntzen zion. Ezkongabeak ziren biak. Gero, ordea, izeba Karolinak *ultramarios* denda ireki zuen Errebalean eta nire ahizpa zaharra hasi zen osabarekin dendan lanean. Egurtzaneko denda esaten zion jendeak, lokalaren jabea Egurtza zelako”.

Berandu arte ibili zen Arantxa eskolan. “Gizarte-zerbitzuak ikasi nuen, Telefonican-edo lana egiteko. Ahizpa, ordea, 23 urterekin moja zihoala eta osaba bakarrik lagatzerik ez zegoela esan zidaten etxekoek, eta haien esana aintzakotzat hartu eta haren lekuan neuk joan behar izan nuen osabari laguntzera”. Dendan saltzaile aritzeko hasiera batean “bokaziorik ez” zuela dio; baina, gerora “osogustura” aritu izan zela.

Osaba “burutik nahasten” hasi zenean Arantxa Agirrek lehengusuarekin batera ne-

gozioaren ardura hartu behar izan zuen. Hura ezkondu zenetik, berriz, dendako martxa berak bakarrik eraman zuen. “Ferreteriko egitekoa alanbreak-eta moztea zen, gizonezkoen lana; igitaiak eta horrelako lan-tresnak zituena osabak saltzeko. Ni pixkanaka-pixkanaka, bestelako generoa sartzen joan nintzen: oparitarako artikulua, bitxiak, ontziteria, kazolak, lepo-zapiak... Gabon garaian lan asko egiten genuen, baina, gauzak diren bezala esan beharra dago, Guiberteneoak beti jaun eta jabe ziren. Bitxi asuntua oso-ondo saltzen genuen: belarritakoak, pultserak, golfiko bitxiak...”.

Dendan inor lapurretan saiatsen zen galdetuta, “a, bai, baziren eskuluzeak ere. Atentzioa ematen ez nintzen atrebitzen, norbera lotsatzen zen horiekin. Behin, Furundarena-ko Jesusek esan zidan: ‘zuri, halakok lorak harrapatu dizkizu’. ‘A, bai?’ Ondoko dendan egiten zuen lana eta arratsaldean harrapatu nuenean hala esan nion: ‘Aizu, lehen hortik hartu dituzun lorak, deskuiduan igoal hartuko zenituen, baina gero, laga itzazu hor’. ‘A, bai! Hala da, lorak eraman ditut eta ez ditut pagatu’. Txintxo ordaindu zizkidan gero”.

Duela sei urte, denda “pena handiarekin” itxi zuela adierazi du Arantxak: “48 bat urte egin nituen lanean eta oraindik ere kalean jendeak hala esaten dit: ‘Ene, makina bat aldiz joan ginen zure dendara! Egia esan, oroitzapen zoragarriak ditut!’”.

Juanitoneko ‘ultramarios’-a

Badira zortzi bat urte Errebalean zen *Juanitonekue ultramarios* dendako atea betiko itxi zirela. Saltoki askok ez bezala, Juanito Etxeberriak ez zuen oinordetzan inor negozioarekin jarraitzeko. Mutilzaharra zen. 60ko hamarkada hasieran ireki zuen janari-denda haren amak, Leonak. Urrestilla aldekoa zen eta alargunduta, semea hartu eta Erdikaleko Trastornoneko okindegiko –orain Amaia taberna den lekuan– nagusiarenera joan zen, hura ere alargunduta, bost seme-alabekin baitzegoen.

Erdikaleko okindegian lan asko egin zuen Leonak, baina gizona hil zenean, semea eta biek Errebalean ireki zuten *ultramarios* denda. Han bizi ziren, dendaren atzealdean logela eta sukaldea baitzituzten. Denetik zuten denda: jatekoa, frutategia, drogeria...

Ama hil eta gero, Olazko Amaren plazan erosi zuen etxea Juanito Etxeberriak. Itxura denez, ordea, osasunez ahul samarra zen Juanito eta azkenengo urteetan gizon bat zuen denda, laguntzeko.✱

Usadio errotuak

Kargudun publikoak ekintza erlijiosoetara ez joateko Alternatibaren eskariaren harira, zer diote Udaleko alderdietako ordezkariak? 📞 Ainitze Agirrezabala

Tradizioaren izenean, agintari publiko askok aparteko lekua izaten dute prozesio eta elizkizunetan, herriaren ordezkari. Parte-hartze hori auzitan jartzen dutenak, berriz, gero eta ugariagoak dira. Alternatibak, esaterako, kargudun publikoak ekintza erlijiosoetara ez joateko eskaria eraman du Gipuzkoako eta Bizkaiko batzar nagusietara.

Saninazio bigarrenen sona handiko prozesioa izaten da herrian, agintarien ordezkaritza zabalarekin. Jai horien inguruan sortutako albisteek bultzatu zituzten Alternatibako kideak, hein batean, gai hau lehen lerroko agenda politikoa sartzera. Prozesio ondorengo elizkizunean, Jose Inazio Munilla Donostiako gotzainak gogor kritikatu zuen egungo hezkuntza sistema, eta atzetik Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu Isabel Zelaaren haserrea heldu zen. Auzia argitze aldera bilera bat eskatu zion apezpikuari. Uztarriak, Udaleko lau alderdietako ordezkariak Alternatibaren ebazpen proposamenaz galdegin die.

Azpeitiko alkate Julian Eizmendiren esanetan, “dudarik gabe” erakunde publikoak Elizaren aurrean “independiente” izan beharko lukete. “Horrela da egungo errealitatean. XI. mendean eta mendebaldeko kultura eta sistemetan, behinik-behin, botere politikoa ez dago Elizaren menpean eta prozesioetan parte hartzea ez da horren adierazle”.

Alternatibaren proposamenarekin “ez dutela bat egiten” dio EAJko alkateak: “Tradi-



Udaleko kargudun publikoak saninaziotako prozesioan, parrokitik ateratzen. ||| Nerea Uranga

zioa mantentzearen aldekoak gara, eta uste dut herritar multzo handi batek ere horrela ikusiko duela". Herrien arteko "ñabardurak, besteak beste, haien historian, ohituretan, tradizioetan... daude", eta "horiek gorde ezean, diferentziak, eta, nolabait, baita nortasuna ere, galdu" egiten dira. Jaiak herriko santuen omenez izaten direla, eta festa horiek herriak "bi alderditan ospatu" izan direla gaineratu du: "elizkizun eta ekitaldi desberdinekin. Udal arduradunek ere parte hartu izan dugu bi arlo horietan; prozesio aldetik Azpeitiak tradizio sakonak ditu eta gure ezaugarri direnez, mantentzearen aldekoak gara".

"Laikotasunaren defentsa"

Alternatibaren proposamenarekin, "neurri batean, bat" datozela dio Iñaki Errazkin Hautetsi Independentistak. "Egia da dugun historia dugula, ehunka urtetan oso lotura estua izan duela Elizarekin, baina garbi esan behar dugu botere zibilak laikotasuna defenditu behar duela". Botere zibilak erlijioarekiko "inpartzialitatea mantendu" behar du. "Garai

batean, ustez, behintzat, denak erlijio katolikora lotzen baziren ere, egun kristoren abanikoa dago eta, beraz, botere zibilak denak ordezkatzeko ditu". Alternatibaren eskaria, neurri batean, hortik datorrela dio: "arauak jasotzen dutenez Estatua eta baita botere zibila ere laikoa edo, gutxienez, akonfesionalak dira; nahiz eta gero ez diren guztiz betetzen".

Saninazioetako prozesio ondorengo elizkizunean, Munillak egindako adierazpenek "eztabaida berpiztu" dutela dio: "azkenengo urteetan, ospakizun eta usadio bezala egin izan dira, gehiagora sartu gabe; baina, horrelako ekitaldiak eztabaida politikoa sortzeko eta botere zibilak egin behar duenaren inguruan hitz egiteko erabiltzen badira, horrek oraindik eta gehiago berpizten du kontrako zera hori. Pentsatzen jartzen bagara, nahiko arkaiko geratu diren ospakizunak dira".

"Kentzea erraza, jartzea zaila"

EAKo ordezkari Manuel Unanuek adierazi duenez, "argi eta garbi" utzi behar da "bi estamentu desberdin" direla eta "bakoitzak bere independentzia" duela. "Nik uste dut erakunde publikoak momentu honetan libre direla, nahi duena joaten dela eta nahi ez duena ez. Alternatibak hori eskatzeko bere askatasuna du, nik zinegotzi bezala nirea dudana gisara. Tradizioak tradizio dira, duten pisua dute eta nik garrantzia handia ematen diet. Horrek ez du esan nahi inmovilismo horretan mantendu behar direnik. Kentzea erra-

za da, jartzea izaten da zaila hemen. Puskatzea da erraza, egitea da zaila. Tradizio bat, zein bestea errespetagarriak dira eta norbere kontzientziaren arabera jokatu behar dugu. Nik momentu honetan parte hartzen dut eta ez dut inongo arazorik tradizio horri heltzeko, erakusketa batera edo halako inauguraziotara joaten naizen bezala".

2Itxurakeria, erakutsi nahi"

Aralarko Juan Karlos Arellanok proposamenaren aurrean ez du jarrera esturik. "Halako proposamen zehatza aurkezten denean, egia da beti edukitzen dituela bere nondik-norakoak, eta zaila da margen batzuen barruan sartu eta honaino bai eta honaino ez esatea". Nolanahi ere, Arellanok garbi du herriaren zati baten ordezkari den partetik, betebeharrak batzuk dituela, baina Estatu akonfesionala den neurrian, "errepresentazio hori zer emanik ez" dagoela dio. "Nik inongo arazorik ez dut joateko edo ez joateko. Saninazioetako lehenengo urtean, parrokitik santuarekin egiten den kale buelta horretara eta Loiolako elizkizunera joan nintzen. Politikari bezala, itxurakeria edo zeozer erakutsi nahi izana bezala bizi izan nuen. Nik ez dut bena erlijiosorik eta kaleko buelta erlijioso hori gehiago ez egitea erabaki nuen. Loiolakoa ekintza ofizialagoa dela esango nuke. Halere, aurtengo saninazioetan protokolorik egon ez denez, politikariekin Araneraino joan, han buelta hartu eta udaletxera itzuli nintzen".*



Hitzetatik ekintzetara

III Laikotasunaren alde hitzetatik ekintzetara egin duenik bada herrian. 2007an, Iñaki Errazkinek Ezker abertzalearen izenean alkate kargua hartu zueneko, kasu. Jaietako protokolo zibilak mantendu egin zituen, baina erlijio protokoloetan ezker abertzaleko udal ordezkariak ez zutela parte hartuko esan zuen. "Plenoaren gehiengoak ekitaldi hori mantentzearen aldeko jarrera zuen, eta, beraz, mantendu zen. Baina, guk garbi utzi nahi genuen botere zibilaren eta Elizaren lotura organiko hori ezin genuela mantendu tradizio baten aitzakipean. Banaketa hori egitea garrantzitsua da". Erabakia zerbait "pertsonala" baino "laikotasuna defendatzeko jarrera" izan zela dio. Bestalde, ez joatearen erabakia, "jendeak ondo ulertu" zuela gaineratu du hautetsi independentistak. "Ez da oraingo

eztabaida, azken urte luzeetan indartzen joan dena, baizik. Badakigu tradizioak eta historiak pisu handia dutela, baina jarrera bezala, denborarekin indartzen eta sakontzen joango dela uste dut, eboluzio bat badagoela".

Julian Eizmendi alkate jeltzaleak 2003ko saninazioetako prozesioan, alkate bezala aurrenekoak parte hartu zuenean bizitakoa kontatu du. "Botere zibilaren mandoa adierazten duen zumitzezko aro zuria eraman nuen. Elizan sartzerakoan, ordea, aroa atean utzi behar nuela pentsatu nuen, ez nuela aroarekin sartu behar, Elizaren barruan boterea ez dagokiolako alkateari, apezpikuari baizik. Aroa sarreran uztearena komentatu izan dut, baina ez nuen atean utzi. Alkate bezala prozesio bat geratzen zait, eta, agian, datorren sansebastianetan izango da".



**eskerrik asko
parte hartzeagatik**

haritz etxeberria 'ministro'

josu oiartzabal 'xenpelar'

Esne kontuak

Haritz Etxeberria. Enteratu al haiz Sanjuandegin esne makina bat jarri dutela?

Josu Oiartzabal. Ba huan garaia! Añoi baserrikoa omen duk.

Haritz. Hori duk poza eman zidana. Orain arte ura hautsarekin nahastuta-ko produktu bat edaten ibili gaituk eta.

Josu. 1,10 euro balio dik litroak, batzuen iritziz garestia!

Haritz. Ez zagok gaizki, zuritoaren prezioan. Jendea ohitu egin duk poteko ur zuri horrekin eta horren prezioarekin.

Josu. Askok galleta garestienak erosten ditiztek eta, esnea merkeena. Gainera, ziotek baserrikoak gustu fuertea duela, eta horregatik ez dutela erosten.

Haritz. Baserrikoak zer gustu edukiko dik ba... esnearena. Kontua duk *xiudadano ostia* batzuk gaudela eginda!

Josu. Arropetan gastatu dirua eta gorputzari kaka eman jateko; itxura zaindu eta mamia usteldu.

Haritz. Ba, ez dik itxura ederra poteko esne bifiomega hiperdesnatatuak.

Josu. Halere, pena duk esnea poltsan saltzea. Askoz hobea duk bakoitzak bere botila eramatea. Hala, ez genikek alferrik plastikozko zorroa gastatuko.

Haritz. Makina berria omen duk eta nafar egoskorren bat izango huan asmatu zuena.

Josu. Ba, baditek zer hobetua!

Haritz. Ekologiako klaseak ematen zizkigutek, poltsak ordainduarazi eta, gero, *sanidadearen* izenean 100gr urdaiazpiko *prezintatuta* saltzen ditek.

Josu. Eta guk gure *sanidadean* erosten

JOSU. "Poteko esnearekin, behintzat, ez diagu Euskal Herririk altxatuko"

HARITZ. "Manifa egingo diagu 'euskal behiak jetziaz, Euskal Herria altxatu'"

jarraitzen diagu. Beno, halere hobe duk esne zorro bat tetrabrika baino.

Duintasunaren izenean

Haritz. Hi, bitartekaririk ez zagok ezta?

Josu. Ez, Eroskin egonagatik ez zagok bitartekaririk. Hau duk baserriak aurre-egiteko eredu jasangarri bakarra.

Haritz. Arrazoia duk, bertako produktuak kontsumitu behar dizkiagu eta produktu horiek ematen dizkigutenei soldata duin bat eman.

Josu. Poteko esnearekin, behintzat, ez diagu Euskal Herririk altxatuko.

Haritz. Manifa egingo diagu: 'Euskal behiak jetziaz, Euskal Herria altxatu'.*



Zezenarekin jolasean

Zezen Beltz Elkartek, bigarrenenez, asteburu osoko egitaraua antolatu du hil honen 8tik 10era. Artzubia hiribidean izango den zezen enbolatua izango da berrikuntza nagusia.  Ainitze Agirrezabala

Zezen Beltz Elkartek aste-buru osoko egitaraua antolatu du hil honen 8tik 10era. Ostiralean, bertso afaria izango da Oilo Soro elkartean (21:00). Jokin Uranga eta Jexux Mari irazu ariko dira kantuan eta afaria 30 euro kostako da. Sarrera mugatua denez, lekua hartzeko aurrez deitzea eskatzen da (665702914/646977334).

Larunbatean, 12:30ean hasita, triki poteoa egingo dute "giroa berotzeko" eta 17:00etatik aurrera, zezen jolasak egingo dituzte, zezen-plazan. Zezen Beltzeko kide Mikel Odriozolaren esanetan, "16 gaztek, lau taldetan banatuta, zezenarekin egingo dugu jolas. Ikuskizun ederra izaten da". Ondoren, haurrentzako zezen txikiak aterako dituzte. Sarrerak, egunean bertan erosi ahalko dira. Hamar urte artekoek 2 eurotan

III DATUAK

III **Zer.** Zezen-Beltz Elkartaren II. asteburua.

III **Eguna.** Urriak 8, 9 eta 10 (ostirala, larunbata eta igandea). III **Tokia.** Zezen-plaza, herriko kaleak eta plaza. III **Antolatzailea.** Zezen Beltz Elkartea.

eta handik aurrerakoek bost euroren truke.

Igandean, txahal sailheskia erre eta pintxoak eta edaria banatuko dituzte, 2 eurotan, plazan. Ordu berean, zezen txikiak eta poniak izango dira. "17:00etan, Artzubia itxi eta zezen enbolatua izango da, herrian aurrenekoz. Piramideak, lasto fardoak, mahaiak... jarriko ditugu jolasteko". Gainera, 10 eurotan nikiak erosi ahalko dira.✱

III ZEZEN BELTZEN II. ASTEBURUA

16 **mutil.** Lau taldetan banatuta eta mozorrotuta, zezenarekin jolas egingo dute, zezen-plazan: futboleak, tankredoan...

300 **KG.** Hartzubian izango den zezen enbolatuak 300 kg inguru pisatuko ditu eta hori izango da aurtengo berrikuntza.✱



Zezen beltz Elkartaren asteburuan, iaz, zezen jolasak zezen-plazan. III **Nerea Uranga**

III BESTERIK

1 II. Garagardo Azoka

Garai honetan izaten da Munichen (Alemania), Bavariako hiriburuan, mundu osoan ezaguna den Oktoberfest garagardo festa handia. Azpeitian bigarrenenez egingo dute.

III **Eguna.** Urriak 8tik 11ra (ostegunetik astelehenera).

III **Ordua.** 20:00etan zabalduko dute. III **Tokia.** Azoka Plaza.

III **Antolatzailea.** Bertan eta Iraurgi Saskibalo Elkartea.

2 XVIII.

Urrakiko Igoera

Azpeititik Goiatzera arteko errepidean korrituko den Urrakiko Igoera proba ezaguna da autozaleen artean, tradizio handia duena.

III **Eguna.** Urriak 24 (igandea).

III **Ordua.** 11:30ean lehenengo igoera. III **Tokia.** Azpeititik Goiatzera arteko errepidea.

III **Antolatzailea.** Lagun Artea Eskuderia.

3 Ikasberri Kros Mistoa

Herrian egiten ari diren hainbat lanengatik ibilbidea aldatu egingo dute, baina, hala ere, sei kilometroko luzera izango du. Lasterketan parte hartzeko bikoteko aurrez 20 euro ordaindu beharko dira eta, egunean bertan, 30 euro.

III **Eguna.** Urriak 30 (larunbata).

III **Ordua.** 18:00 III **Tokia.** Plaza.

III **Antolatzailea.** Ikasberri Kirol Elkartea.✱

III **Azpeitiko ekimenez informazio gehiago:** uztarria.com/agenda

saltzeko
erosteko
eskaintzeko
eskatzeko
aurkitzeko

...



www.iragarkilaburrak.com
txintzarri.iragarkilaburrak.com
otamotz.iragarkilaburrak.com
soraluze.iragarkilaburrak.com
elgoibarren.iragarkilaburrak.com
bidasoamedia.iragarkilaburrak.com
ukberri.iragarkilaburrak.com
oarsoaldeko hitza.iragarkilaburrak.com
tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com

busturialdeko hitza.iragarkilaburrak.com
urola-kostako hitza.iragarkilaburrak.com
irutxuloko hitza.iragarkilaburrak.com
goierriko hitza.iragarkilaburrak.com
11barri.iragarkilaburrak.com
baleike.iragarkilaburrak.com
geugasteiz.iragarkilaburrak.com
etakitto.iragarkilaburrak.com

milaka bisita, egunero

zure-azoka

Erregistratu zaitez

eta jarri zure iragarkia **webgunean:**

norbanakoak
doan

enpresak
leku eskusiboa

jarri zure
iragarkia!

Gainera, **ostiralero** paperezko edizioa
100.000aleko zabalkundearekin.


HITZ GEZIDUNAK

	Maisu- mastrak	▼	Arrakalak, artesiak	▼	Kontinente bat	▼	Puska	▼	Berritsua
	Suntsituak		Senidea		Txiki-txiki egin		3. eta 2. bokalak		
	▶		▼		▼		▼		
	*	▶							
	Artsenikoa								
Bat egite	▼	Zuhaitz mota	▶ ▼				49	▶	
Pl., hegazi mota		Bazterra, ertza					Aldakiak		
▶		▼					Potasioa	▶ ▼	Bokala
							Fruitu mota		... egon, zain egon
Euskal fonema	▶		Ankerrak, gaiztoak	▶			▼		▼
Zuhaitz mota			Bokala						
▶			▼		Ametza	▶			
					Arkuaren erdian				
Musika nota	▶		Errukibera	▶	▼				
Bizkaiko herria			Dauka						
▶			▼				4. eta 1. bokalak	▶	Bokala
							Kontso- nantea		Oxigenoa
Toka, naiz	▶				Kakoa	▶	▼		▼

* Azpeitiko etxea

HIZKI ZOPA

Aurki itzazu hizki zopa honetan irudietan ageri diren Azpeitiko 8 auzo eta bazterren izenak.



D	O	L	R	Z	E	S	N	L	I	T	A
E	H	U	X	T	A	X	U	O	U	T	G
M	I	E	Z	L	K	I	A	R	N	E	A
A	L	Z	O	I	L	O	R	E	S	X	I
B	N	I	A	D	E	Z	B	P	A	Z	S
E	O	S	L	G	K	N	E	O	L	R	O
L	E	I	L	R	I	O	S	I	A	G	L
A	L	X	I	X	B	R	D	A	E	X	E
N	O	G	T	A	U	I	R	T	O	I	L
L	S	A	S	P	L	I	L	E	N	T	A
O	M	X	E	S	A	E	H	D	X	I	M
M	I	E	R	I	K	L	I	N	O	I	R
I	N	A	R	A	O	A	S	A	L	O	K
Z	A	G	U	R	S	O	S	L	I	E	L

||| SOLUZIOAK |||||

HITZ GEZIDUNAK

A	O	K	A	R	K	●	K	U	A	N	●
I	●	A	O	●	A	K	A	D	N	U	M
R	O	I	K	U	R	R	E	●	I	S	●
A	I	P	O	T	U	●	L	A	K	A	M
K	A	O	K	I	D	A	S	●	Z	T	●
A	●	K	●	K	A	I	S	A	I	F	A
L	I	●	A	I	Z	A	K	A	●	B	●
A	T	E	I	X	T	N	A	●			
K	A	I	S	T	A	I	R	E			
●	Z	●	A	●	P	●	I	●			

HIZKI ZOPA

L	E	I	L	S	O	S	R	S	U	G	Z
K	O	L	A	S	A	L	A	R	A	I	N
R	I	N	O	I	K	L	R	I	E	M	I
M	X	I	M	D	H	E	S	A	E	X	O
A	N	T	A	L	E	P	L	I	S	A	L
L	O	I	L	T	O	I	R	A	U	I	N
E	X	E	A	D	B	R	X	I	X	A	L
L	G	L	O	S	I	A	G	L	E	I	R
O	L	R	O	L	E	K	N	E	O	S	L
S	Z	P	A	Z	B	A	D	E	Z	N	B
I	X	S	E	S	I	O	L	I	Z	A	L
A	N	E	A	R	N	E	L	K	Z	M	I
G	U	O	U	T	A	X	H	U	X	E	H
A	L	I	T	A	N	L	E	S	Z	E	D

||| UZTARRIAREN ABUZTUKO ARGAZKI LEHIAKETA |||||

ZER DAGO FALTAN, ZER SOBERAN?



UDALETXEKO ARMARRIA FALTA DA



IRABAZLEA



Marikarmen Arozena Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 121. irabazlea. Larchago upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Marikarmen Arozena, saria eskuetan duela.

||| ZEIN DA? |||||



||| ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Urriak 20 (asteazkena) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| IRABAZLEARI SARIA. Larchago upategiko ardoak ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ||| ZEIN DEN ADIERAZI.

||| ZURE IZEN-ABIZENAK

||| TELEFONO ZENBAKIA

ETXEZ ETXEKO
ARDO BANAKETA

943 76 98 51 Larchago

Larchago kriantza 2006
GETARIAKO ASTILLERO JATETXEKO
ARDO KARTAN

Kriantza Lepagorria borobil eta erraz edatekoa.

Txizari ezin eutsi

Txizari ezin eustea gero eta gehiago nabari da gure artean, kalkulu guztiak gairatzen ari baita bizitzeko itzaropena, eta arazo hau 50 urte baino gehiago dutenek baino ez dutela esan daiteke.

Arazoa sexu biena da. Emakumeengan kausak gizentasuna, erditze ugariak, esfortzuak, eztula... izan daitezke. Gizonezkoetan, gehienetan jatorria prostata arazoan datza.

Egoera normal batean, maskuria tantaka edo zorrotadaz husten da. Arazoak mediku edo zirujauaren tratamendua du irtenbide, baina konponbidea gaixoarene borondatean dago. Txizari eutsi ezinak ez du inoiz hidratazioarentzako arriskua izan behar. 'Gehiago edaten badut, txiza gehiago egingo dut' esaldia baztertu behar dugu betiko.

Pelbisaren zoruak, gure gorputza anatomikoki eta horizontalean ixten digunak, muskulatura du eta txiza eustea aurreikusten du. Hala, ariketen bidez indartu dezakegu muskulatura, arazoa sahistuz.

Ariketa fisikoak edozein lekutan eta momentutan egin daitezke. Gorputza erlaxatu behar da eta ipurdiko zuloa indartsu uzurtu. Bost-hamar segundo pasatu ondoren pixkanaka erlaxatu behar da.

Egunean ehun bat aldiz mugimendu hori eginez gero, hiru hilabete barru emaitza emango dute.*



|||||||julian bereziartua|||||||

URKO KAPEROTXIPI elektrizista



1. Nolaz elektrizista?

Eskolan artistak ginen eta aitari laguntzen hasi eta...

2. Ohiko konponketa?

Etetresna elektrikoren batek argia botatakoan.

3. Kalanbre asko hartutakoa al zara?

Hasieran bai, edozein

lekutan eskua sartzen nuen eta. Bi kableri batera sekula ez heltzea da lema.

4. Kalanbre on bat nori emango zenioke?

Politikari gizajo horiei.

5. Argiarekin edo gabe?

Beti argitan, zer dagoen ikusteko. Kar, kar, kar.

6. Argindarrrik gabe zer litzateke mundua?

Barregarria. Zer egin ez dakigula egongo ginateke.

7. Beti gainean daramazun erreminta?

Guraizeak, bihurkina, zinta isolatzailea eta alikateak.*

✉ Ainitze Agirrezabala

AZKOITIA
ERLOJU KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Amenabar
DENDA
gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...
Eliz-kale, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97

Ekain
Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Larrialdia: 943 15 16 40

JAZKI moda
Jose de Artetxe 10
Tlf: 943 81 17 69

AIZPURU AUTOAK
Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net

ostadar optika
OPTIKAK - OPTOMETRISTAK
Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

lentzeria mertzeria
jose artetxe, 16
nabar

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"
URBISTONDO MARGOAK
Salbe Auzunea, 35 behea
20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

domusa

ELKARRIZKETA ||| Eguzkine Peña / Realeko futbol jokalaria

“Ahalik eta partida gehien jokatzea eta ahal bada pare bat gol sartzea dira nire erronkak”

||| Eguzkiñe Peñak (Azpeitia, 1992) Realeko nesken taldean jokatuko du datozen hiru denboraldietan. Lehenago, Lagun Ona-ken jokatzen zuen aurrelariak.

Sorpresa izan al da Realean jokatuko duzula jakitea?

Bai, sorpresa izan da. Espero ez nuenik ez dut esango, baina ezezkoa jasotzeko aukera hor egoten da beti. Egia esan, ezezkoa jasotzeko beldurra nuen gustura egon bainaiz aurrendenboraldian. Han jarraitu nahi nuen.

Superligan, emakumeen go-reneko mailan, jokatzeak beldurrik ematen al dizu?

Beldurra ez da hitza, errespetua baizik. Beldurra ez da eduki behar horrelakoetan. Errespetua bai, ordea. Esperientziadun jendea dago Superligan eta ni baino zaharragoak gainera.

Zer alde on eta txar ditu Realean jokatzeak?

Alde onak esaten hasiko naiz.

Lagun Onakekin konparatuta beste maila batean dago Reala zentzu guztietan: taxia Zubietara joateko, arropa bertan garbitzen digute, instalazioak hobeak dira... Alde txarra, berriz, partida asko ikusi egin beharko ditudala jokatu beharrean.

Denboraldiari begira, zer erronka dituzu?

Ahalik eta partida gehien jokatzea eta ahal bada pare bat gol

sartzea (kar, kar, kar). Baina konpetentzia handia dago eta zaila izango da jokatzea.

Denboraldirako zein helburu ditu taldeak?

Helburu nagusia kopan sartzea da. Hala ere, lehengo urteko postua hobetzea nahi genuke.

A taldean jokatuko duzue lehen fasea. Nola ikusten dituzu aurkariak?

Egia esan, ez diot asko begiratu multzoari, baina badakit Eibar eta Athletic ditugula taldean.

Salto handia al dago Lagun Onaketik Realera?

Izugarria. Beste maila bat dago eta giro desberdina Lagun Onakekin konparatuta. Beste modu batean hartzen dira gauzak.

Ikasketak eta futbola bate-ragarriak al dira?

Orain artean hala izan dira. Bieta-rako astia izan dut. Hemendik aurrera ez dakit nola izango den, ikusteko dago.*



EFEMERIDEAK |||

1638

Ura nahastutako sagardoa.

Jabetuz sagar gutxi izan zela urte hartan, eta derrigorrezkoa izanik sagardoa izatea herritarrentzat, ura nahastutako sagardoa egiteko baimena eman zuten.

1976

Zine Klubaren lehen zinema emanaldia. 'Ya no basta con rezar' filma eskaini zuten.

1677

Herriko harakinari agindua. Goizeko seietan ireki behar zuen denda; arratsaldean hirurak aldera. Saltzeko unean, lehentasuna apaizen neskameek eta komunitateko arduradunek zuten.

Iturria: Azpeitiko efemerideak.

Herria historian zehar liburua.

||| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

||| Argitaratzailea: Uztarria Kultur

Koordinakundea.*

www.uztarria.com

azpeitiko ataiye

||| eguneko albisteak ||| irakurleen erantzunak ||| eguneko argazkia ||| bideoak ||| blogak ||| inkesta ||| agenda ||| bitxikeriak ||| 'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak, hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... ||| uztarria herri aldizkari denak; PDF formatoan ere bai ||| eguneko efemerideak ||| gida komertziala...

||| sartu sarean, eta hartu parte ||| egunero **7.000** orrialderen bisita





Ume bat bezala

Ehun urte eta kontatzeko asko,
politik eta bestelakoak.
Belaunak kaxkar, altxorra
buruan.

 Mailo Oiarzabal

Iraileko arratsaldea sargoria da. Dakitenek badakite, eguzkiaren gauzarik ederrena itzalpea dela. Eta gerizpearen abaroen hartu du Albina Arregi Urbietak (Loiola, 1910) Uztarriaren bisita, Atxubiaga baserriaren atarian. Irribarrea ezpainetan, eguneroko siestaren ondoren, azkenaldian behin baino gehiagotan egitea egokitu zaiona berriro egiteko prest dago: atzera begira jarri eta dagoeneko ehun urteen muga gainditu duen bizitzari errepasoa emateko pronto.

Atxubiagako ataria talaia polita da, Lande-

tako zati ederra ikus daiteke handik. Askok aldatu da, ordea, ikusmira, Albina Arregi han bizitzen jarri zenetik. Orain dela 70 urte iritsi zen Etxearetako alabarik gazteena Atxubiagara. Orduan, soroak eta baserriak besterik ez zituen inguruan; orain, lantegi sail zabala da etxetik ikusten duena. “Ene, gure Jaungoikoa! Makina bat gauza aldatu da”, dio Albina. Eta ez da paisaiaz bakarrik ari.

Jesuitak eta Zita

Txikitako oroitzapenak bereziki gozo dakartza

gogora. Loiolako bizipenetaz ari dela, behin eta berriro aipatzen ditu jesuitak. Haiekin ibili zen eskolan txikitik, eta oroitzapen gozoak ditu. Jaunartze nagusia Azpeitiko parrokiaren egin behar, ordea, eta hura prestatzeko, Miserikordira joaten ziren. Han ‘ezagutu’ zituen apaizak. “Gu jesuitekin bakarrik ohituta geunden, eta apaizak oso diferenteak aurkitzen genituen. Diferenteak ziren, zakarragoak. Jesuitak beti xuabeagoak”, dio, irribarrez.

Bereziki gogoan dauzka Albinak jesuitekin urtean behin egiten zituzten txangoak. “Gu-

raso aberatsak-edo” zituztenak omen zeuden tartean, eta haien bidez itsasontzian ibiltzeko aukera izaten zuten, besteak beste, Loiolako haurrek. Zumaiaetik Getariara eramaten zituzten barkuan, baina Ondarroako txangoa da Albinak ondoen gogoratzen duena: “Denak baliente, barkuan sartzerakoan; baina, ibiltzen hasi eta mendiak ezkutatzen hasi zirenean, batzuk negarrez, besteak lurrean etzanda... Jesus!”.

Loiolako santutegia gune turistiko garrantzitsua zen garai hartan, “gaur baino askoz gehiago”. Bisitari asko inguratzen zen Loiolara Albina Arregi umea zela. Bat, oso berezia: Zita Borbon-Parma, inperio austro-hungariarreko azken enperatriza. Lehen Mundu Gerraren ondoren erbesteratua, Lekeition bizi izan zen sasoi batean, eta “urtero-urtero” etortzen zen Loiolara. “Aurretik etortzen ziren motorrak eta abarrak –kontatzen du Abinak–. ‘Adios, hemen dun, bazetorren!’, eta gu zain. Sekulako abaniko ederrak eta, usain bat bai... Puf, dotoreak. Lehenengotik jesuitengana joaten zen, eta gero Loiola Hotelera [orain Arrupe Hotela ireki duten toki berean]; han hartzen zuten errefreskoa-edo”.

1932an Espainiako II. Errepublikak konpainia desegin eta jesuitek Loiolatik alde egin zutenekoa egun “tristeia” izan zen Albina Arregirentzat. Esku hutsik ez ziren joan, behintzat, jesulagunak; “kaxa astun” bat garraiatzen lagundu zien Etxearretako neskak bere karroan, kotxe batera. “Etxe Santuan zeuzkaten relikiak omen ziren, urrezkoak eta”, dio.

Etxearretatik aurrena eta Atxubiagatik ondoren, inguruetako azokak ondo ezagututakoa ere bada Albina. Bere gaztaroan, Azkoitian Azpeitian baino salmenta hobeak egiten zituztela du gogoan. “Azkoitian lantegi handiak zeuden, eta dirua. Hango neskak doto-rea goak beti, Azpeitikoak baino”, esaten du.

Gauza tristeia

Ehun urtetik ia hiru laurden Landetan bizi izan den arren, ez zen berak nahi bezain azkar iritsi Atxubiagara. 30 urterekin ezkondu zen Pedro Bereziartuarekin. Garai hartarako, adi-



1. Etxearretako sendia. Albina ezkerretik hasita lehenengoa da. 2. Pedro eta Albina alabekin, Loiolan. 3. Birloba txikiena, Einar, magalean hartuta. 4. Atxubiagako sendia. Goian ezkerretik hirugarrena da Albina. 5. Pedro eta Albina, bertsoak entzuten.

Txinatarrak

|||‘Alferkerian’ bizi den honetan, egunkariak irakurtzea da Atxubiagako etxeakoandarearen denborapasarik gustukoena. Kirolak gustatzen zaizkio, “eta telebistan ere bai; horixe dago, ematen duten politena”. Kirol saioak, eta ‘Mihiluze’. Egunero ikusten du, “eta gero, ohera”.

Esklabetan meza entzutea ere gustatzen zaio. Garai bateko fede erakustaldiak atzean geratu diren honetan, txinatarrekin akordatzeko da Albina. “Haientzako diru biltzen gu, aizu –dio, umorez–. Nik hori esaten dut, geu baino aberatsago izanda... Ez dakit, gure diru haiek, non enpleatzen ziren! Txinoz jantzita, haientzako dirua biltzen; txinoentzako eta txinoentzako! Azkoitiarra, xano ibili ginen gu, xano-xano!”.

nean aurrera joanda, baina ez bere borondatez. 1936ko gerrak bete-bete harrapatuta, senargaia frontera joan zitzaion. Galtzaileen bandokoa izan eta, gerran emandako urteez gain, beste hiru kartzelan egin zituen Pedro Bereziartuak. Urte haietako oroitzapenak jaten diote irribarrea Albinari. “Gauza tristeia”, gerra.

Oroitzapen tristeek irribarrea kendu, eta familiak berriro ekarri. Bost seme-alaba, hainbat biloba eta sei birloba ditu Albinak, “eta zazpigarrena bidean”. Elkarrizketa bukatzerako koadrila polita inguratu zaio baserri atarira, birloba gazteena tartean dela. Hainbeste lan egin eta gero, “orain alferkerian” bizi dela bota du: “Ume bat bezala nago eta! Kolperik jo gabe, lan bat ere ez dut egiten; agindu bai, deskuidatuz gero”. Belaunak ditu ahul –“Iturbidetarren herentzia” omen–, baina burua argi eta umorea fresko. Ehun urteko umea.✱

IRENE ALTUNA
LORADENDA
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com

ORKATZ KULTUR ELKARTEA
Erdi Kalea, 24 • Tel. 943 15 00 06

Aiertza Autoak
CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiertzaautoak@telefonica.net

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	02 54 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

FARMAZIAK (URRIA)

EGUNEZ

1-15-20-27	2-3-11-16-17-21-28	4-5-6-7-8-9-10-12-26
Beristain (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).
943 811 949	943 815 974	943 811 350

GAUEZ

1-2-3-18-19-20-21-22-23-24	4-5-6-7-8-9-10	11-16-17-29
Eizagirre (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Ruiz (Azkoitia).
943 811 274	943 811 350	943 851 966

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Urriaren 27an izango dute hitzordua, 18:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07

Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak

	943 08 06 88
--	--------------

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 09:00-13:30 ||| Larunbata: 09:00-13:00 **UDALTZAINGOA** ||| Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** ||| Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 **ZAPO TXOKO** ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



▲ ORDU ETA ERDI DOAN.

Soreasuko lur-azpiko parking-ean autoa lehenengo ordu eta erdian aparkatzea debalde da. Bestalde, hilabeteko (50 euro BEZ barne) eta urteko (500 euro BEZ barne) bonoak ere erosi daitezke.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

1-2-3-18-19-20-21-22-23-24	4-5-6-7-8-9-10	11-16-17-29	12-13-25-30-31	14-26-27	15-28
Eizagirre (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Ruiz (Azkoitia).	Jaen (Azkoitia).	Azpiazu (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).
943 811 274	943 811 350	943 851 966	943 850 660	943 852 989	943 851 235

SARA CARRASCO

Txile

“Hemen ez zagon koadrilakoekin egoteko ohiturarik”

Kirol irakasletzako azken urtea atzerrian egitea erabakita, Txilera joan zen duela hiru hilabete.  Julene Frantzesena

Nolakoak ditun txiletarrak?

Leku guztietan bezala denetik zagon, baina orokorrean lasaiak, hiztunak, izaera irekikoak, abegitsuak eta lotsagabeak ditun.

Azpeitiak ez duen zer din Txilek?

Kalera irten eta planik eduki gabe egun guztia kalean pasatzea erraza dun hemen: jendearekin hitz egin, zerbait hartzera joan... Hemen ez zagon Azpeitian dagoen koadrilakoekin egoteko ohitura hori, alboan dagoenarekin hitz egiten dituen ezagutu ez arren.

Zer gustatu zain gehien? Eta, gutxien?

Gehien, kalean dagoen bizitza eta txiletarren bizimodua. Etengabe jendea ezagutzeko aukera zagon hemen. Aldiz, batzuetan asko hitz egin eta ez dutela entzuten ematen din, eta hori ez zaidan gehiegi gustatzen.

Txilen hagonan denboran zerbaitek eman al din atentzioa?

Ezusteko onak eta txarrak izan ditinat. Txiletarrak oso abegitsuak ditun eta hori eskertzen dun lehenengo egunetan, lekua berria denean eta inor ezagutzen ez dunanean. Ni neu Valparaison bizi naun eta hemen dagoen ‘kaleko bizitzak’ asko harritu nau, baina gus-

tatzen zaidan. Bestalde, garraioaren funtzionamendua ere harrigarria dun: autobusak oso zaharrak ditun, eta halere etengabe ibiltzen ditun batetik bestera. Bazeuden, orde, grazia handirik egin ez didaten gauzak ere. Batzuetan, duela 50 bat urteko Euskal Herrian bizi naunela iruditzen zaidan. Matxis-mo handia zagon eta jendearen jarreraren eta osasun eta hezkuntza alorrean nabaria dun hori. Ez zagon imajinatzerik gure adin inguruko zenbat jende dagoen haurdun edo umea izanda.

Zerbait botatzen al dun faltan?

Egia esan, ez dinat ia ezer botatzen faltan, oraingo. Duela bi hilabete iritsi nindunan eta oraindik dena berria egiten zaidan. Hala ere, lagunekin, etxekoekin, parrandarekin, paellarekin... noizean behin gogoratzen naun.

Euskal Herriaz ba al zekiten ezer txiletarrek?

Batzuk zerbait bai, baina orokorrean askorik ez. Badun bizi dinagun egoera ezagutzen duenik, baina beste batzuei Euskal Herria mapan kokatzeko esan eta ez zintaten asmatuko non dagoen esaten.0*



Sara Carrasco Valparaison ari da kirol irakasletzako azken urtea egiten. Txileko leku desberdinetan ateratako argazkiak dira.



Eskolako lanak eskolan

Gasteiz. Ez da kurtsoa hasi zaharra. Irailean bertan, ikasturtearen hirugarren egunean, fitxa ekarri du Mariak ikastolatik etxera. “Biharko etxekolana!”. Liburuan bertan ageri diren gorputz atalen izenak fitxako neskaren marrazkiari —orrialdearen alde batean—, eta mutilari —beste aldean—, dago-kion lekuan jartzea da lana. Eskolan egindakoa, etxean berriz egiten ari da Maria. Ariketaren arrazoia, horratik! Iaztik datozen protestak egin dituzte gurasoek eta zazpi urteko neska koxkorrak, eskolako lanak zertan egin behar ote dituen etxean, elkarbizitza galarazi besterik ez dutela egiten, berak jolas egin behar duela... Gurasoek esan diotena: “Egin nahi baduzu, egin, baina ez ibili protestarik. Egin nahi ez baduzu, ez egin, esan andereñoari zeharo aspergarria gertatzen zaizula lan hori, asmatzeko beste zer edo zer, edo ez agintzeko eskolako lanik etxean egiteko. Konforme gaude zurekin”... Baina Mariak ez du esku hutsik joan nahi, ikaskideek lana egingo dutela jakinaren gainean. Ez du bere burua hogeitaz neska-mutilen artean nabarmendu nahi. Egin du lana, eta ikastolara eraman. “Bi gorputzak ere koloreztatu egin behar ziren. Andereñoak esan zuen!”.

Azpeitia. Telefonoz ari da Miren Gasteiza. Anaiari hoska. “Nik ez diat entenditzen motel! Oraintxe hasi dituk eta etxeko lana, eskolakoa, ekarri dik gure honek. Goizeko zortzi eta erdietatik ordu biak arte ikastolan ari duk eta zer edo zer egingo ahal dik han!... Bai, DBH egiten hasi duk... Erro karratuak egin behar. Berak ez zakik, eta nik ere ez. Nola lagundu behar zioat, ba!... Bai, esan ziok andereñoari, ez dakiela erro karraturik egiten, eta hark, esplikatu zuela eskolan! Baina gure honek ez entenditu, nonbait! Eta uste al duk erantzuna dela hori? ‘Esplikatu zuela’? Esplika diezaio-lan berriz! Zertarako zegok ba irakaslea? Eta etxeko lan horiek? Zer egiten diate ba ikastolan, gero etxean lan bera egin behar badute? Dirua baneuka, hartu irakasle bat etxean, eta



|||||||miel a. elustondo|||||||


|||“Dirua banu, hartu irakasle bat etxean, eta ez nitek umea ikastolara bidaliko! Horixe egingo nitek!”

ez nitek umea ikastolara bidaliko! Horixe egingo nitek!”.

Txangurroaren gisara

Ondarroa. Lan bazkaria Liburiok eta Jonek, kanpoko jatetxean. Telebista proiektua, batek. Liburu asmoa, besteak. Batak beste-ari zalantzak argitzen jardun dute ordubetez, bazkaltzeko denboran. Jan eta edan dute. Badoaz. Eta alde egiteko orduan, pagatzera-koan, han non ikusten duten mutikoa, zortzi-bederatzi bat urtekoa, koadernoaz zabalik baina telebistari begira, askotariko biderketa eta zatiketa luzeak egiten. Liburiok ordaindu bitartean zuzendu zaio Jon harako mutikoari. “Eta, zer ari haiz ba?”. “Hementxe, eskolako lanak egiten”. “Ikastolan zer egiten dozue, ba?”. Mutikoak ez du erantzun, sorbaldak uz-kurtu eta koadernoan sartu du berriz burua. Mutikoak erantzunik ez, Jonek ere ez. Azpeitiko Mirenek ez. Haren anaiak ez. Gasteizko Mariak ez. Haren gurasoek ez... Eta segi eskolako lanak etxean egiten!

Aurreratutzen goaz,
txangurruben gisan
(Pello Mari
Otaño).✱





Osasun Arreta Ziurtagiria
duen Euskal Herriko
lehengo hortz klinika

KONPONDU ZURRUNGEN ARAZOA

ZURRUNGENTZAT ETA LOALDIKO APNEARENTZAT TRATAMENDUA

iberotarren plaza 4 behea
20730 azpeitia gipuzkoa
t. 943 81 44 50
f. 943 81 50 52

OrtoApnea, zurrungarik ez egiteko ahoko aparatua

www.grupohorzkari.com



eurotex

P I N T U R A K



BURDINDEGIA



ELEKTRIZITATEA



BRIKOLAJEA



SEGURTASUN BABESA



Landeta Hiribidea, 8 - AZPEITIA
tel. 943 81 25 66 - mug. 607 75 88 01 - www.landetabrikodenda.com

www.eurotex.es





LENOVO G550



- Intel Pentium Dual Core T4400, 2.20GHZ
- RAM Memoria 4 GB
- Disko gogorra: 320 GB
- DVDRW
- Windows 7 Home Premium
- Pantaila: 15.6" pantaila led + webcam

550 euro
b.e.z. barne



innovadental

Bisita gaitzazu:

José de Artetxe kalea, 5
(anbulatorioaren ondoan)
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

Edo deitu:

943 02 59 55



innovadental

implanteak

Euskadin, 2.000 INPLANTEtik gora
*Eskatu presupuestoa eta kontsultatu
gure finantzaketa!*

hortz-klinika
AZPEITIA